

# PROBA ESPEZIFIKOA

201' ko PROBA

**GEOGRAFIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK 25 URTETIK  
GORAKOAK

2013ko MAIATZA  
**GEOGRAFIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS

MAYO 2013  
**GEOGRAFÍA**

Probaren iraupena: ordubete.

1.- Egin ezazu iruzkin bat irudi honi buruz (3 puntu):



2.- Hautatu eta erantzun bi galdera hauetako bati. (3 puntu)

- A. Iberiar penintsulako erliebea.
- B. Euskal Autonomia Erkidegoko erliebea.

3.- Defini itzazu termino hauek (hautatu 3):


(1 puntu)

- Tektonika
- Profil topografikoa
- Eskala grafikoa
- Ninboa
- Transhumantzia
- Isohieta.



4.- Egin ezazu iruzkin bat grafiko honi buruz (3 puntu).

*Euskal Autonomia Erkidegoko migrazio-saldoaren bilakaera, osoa eta lurralde historiko bakoitzekoa, 2005 (Iturria: EUSTAT).*





**ORIENTABIDE GISAKO EBAZPENA  
(2013ko maiatza)**

1.-

- Erliebe gorabeheratsu eta latzeko inguru bat da, biztanle gutxikoa.
- Klima mediterraneo menditarra, altitude ertainekoa.
- Lehen sektoreko jarduera ekonomikoa duen ingurua.

2.-

**A. Iberiar penintsulako erliebea.**

Iberiar penintsulako erliebea plaka tektoniko afrikarraren eta euroasiarraren higiduren emaitza da.

Ezaugarri nagusia erdialdeko goi-lautada handi bat da.

Erdialdeko Sistemak goi-lautada zeharkatzen du, eta bi goi-azpilautadatan banatzen.

Mendikate eta mendigune sail batek inguratzen du goi-lautada: Galizia-Leongo mendigunea, Kantauriar mendikatea, Iberiar sistema eta Sierra Morena mendikatea.

Hiru mendi-sistema goi-lautadaz kanpokoak dira.

Bi sakonune handi, Espainiako ibai nagusietako bik zeharkatuak.

Kostak.

**B. Euskal Autonomia Erkidegoko erliebea.**

Euskal Autonomia Erkidegoko erliebea askotarikoa eta gorabeheratsua da.

Ardatz egituratzailea Gipuzkoako hegoaldearen, Arabako iparraldearen eta Bizkaiko hego-ekialdearen arteko mendikate eta mendiguneak dira.

Haien eta uren banalerroko mendikateen artean sakonune zabal bat dago: Arabako lautada.

Kosta.

3.-

- Tektonika: Lurrazalaren deformazio eta higidurak aztertzen dituen geologiaren atala.
- Profil topografikoa: Erliebea irudikatzen duen grafikoa. Sestra-kurben mapa —mapa topografiko— baten lerroak zeharka ebakiz lortzen da.
- Eskala grafikoa: Lerro zuzena zati berdinetan zatitua eta metro, kilometro eta abarretan adierazia.
- Ninboa: Hodei trinko eta iluna, estratu-formakoa.
- Transhumantzia: Aziendarekin egiten den urtaroko migrazioa.
- Isohietak: Mapa batean prezipitazio berdineko puntuak lotzen dituen lerroa.



4.-

- 2005. urtean, saldo positiboa Euskal Autonomia Erkidegoan, hiru lurralde historikoetan.
- ... ..
- ... ..

<b>GALDERA</b>	<b>EDUKI-BLOKEAK ETA ADIERAZLEAK</b>
1	1. blokea
2	3. blokea
3	1., 3., 4. eta 5. blokeak
4	5. blokea